


Baigorriko Berriak



BAIGORRIKO BERRIAK - Bulletin municipal d'information - Février 2025 / Otsaila - n° 08



Le mot du Maire

Cher.e.s Baigorriar,

Qu'il me soit permis, à travers ce mot, de vous souhaiter à toutes et à tous, le meilleur pour 2025. L'année 2024 n'aura pas été la plus simple, ni la plus tranquille, que ce soit au plan local, comme au plan hexagonal ou international.

Dans ce contexte difficile, notre municipalité, collectivité de proximité, souhaite plus que jamais inscrire son action autour du principe de solidarité. Solidarité entre Baigorriar d'abord, par l'attention portée aux plus fragiles, nos anciens, comme nos plus jeunes, par la précaution apportée aux différents quartiers... Ce qui est entrepris au niveau communal, souvent en collaboration avec la Communauté d'Agglomération Pays Basque, mais aussi avec les autres institutions comme le Conseil Départemental ou les services de l'État, a pour objectif d'améliorer les conditions de vie des Baigorriar, que ce soit en termes de voirie, de transports, de logement, ou d'accompagnement dans les démarches administratives. La solidarité doit aussi nous permettre de nous préparer aux défis que notre commune, au côté des autres villages de la vallée de Baigorri doit affronter au présent, comme à l'avenir : un territoire vivant, habité, en transition et qui défend une identité qui lui est propre.

Au 1er janvier 2025, nous sommes officiellement 1540 habitants, soit 20 de plus que l'année dernière. Cette reprise timide est peut-être le signe d'un intérêt porté à notre commune par des populations extérieures qui viennent s'y installer, pour différentes raisons.

À nous de conforter, ensemble, cette tendance par notre action communale : accompagnement du tissu économique local (Zones d'activités), travail avec les bailleurs sociaux sur le logement, facilitation de l'activité agricole (réfection de la voirie), appui aux associations (salle de handball, subventions), renforcement de la présence de l'euskara, pilier de notre identité, dans la vie communale, accélération de la transition énergétique et écologique, notamment pour faire face aux intempéries qui semblent devoir se répéter plus souvent et plus fort... tout ceci doit concourir à rendre notre village attractif, accessible, vivant, et bien ancré dans ses montagnes navarraises, à la croisée de Baztan et de Erro, solidaire, enfin de sa « sœur jumelée », Tafalla en Navarre.



Antton Curutcharry

Auzapezaren Hitza

Baigorriar maiteak,

Hitz honen bidez, hoberena desiratu nahi dauzuet 2025eko. 2024ko urtea ez da errexena izan, ezta lasaiena ere, ez hemen berean, ez hexagonoan, eta ez nazioartean.

Testuinguru zail huntan, gure herriak, hurbileko kolektibitatea izanki, bere ekintza elkartasun printzipioaren inguruan finkatu nahi du, sekulan baino gehiago. Baigorriaren arteko elkartasuna lehenik, ahalener kasu emanez, gure zaharrer, gure gazteener bezala, auzo guzietan artoski begiratuz... Herri mailan abiatua denak, usu Euskal Hirigune Elkargoarekin elkarlanear, baina baita Departamenduko Kontseiluarekin edo Eustatuko zerbitzuekin ere, Baigorriaren bizi baldintzak hobetze du helburu, bide, garraio, etxebizitza alorretan, bai eta administrazio urratsetan laguntzeko ere. Gainerat, elkartasunak eman behar dauku bidea gure herriak, orain, geroan bezala, Baigorriko ibarreko bertze herriekin batean altxatu behar dituen desafioen prestatzeko: lurralte bizia, populatua, trantsizioan dena eta bere nortasuna defendatzeko duena.

2025eko urtarrilaren 1ean, ofizialki 1540 bizilagun gira: iaz baino 20 gehiago. Susperialdi xume hori, beharbada, gure herrian kanpoko jendeak instalatzerat sustatu dituzten interesaren seinale da.

Hainbat arrazoin badira jendea hunat bizitzerat jin dadin.

Gure Herriko Etxeari doakio bere ekintzaren bidez tendentzia horren indartzea: hemengo ekonomia-sarea lagunduz (aktibitate-eremuak), arrandan-emaile sozialekin etxebizitza alorrean lan eginez, laborantxa errectuz (bideak berrituz), elkartea lagunduz (eskubaloi-sala, dirulaguntzak), herriko bizian eskuaren presentzia indartuz, gure nortasunen zutabea baita, trantsizio energetikoa eta ekologikoa azkartuz, bereziki, iduriz usuago eta indartsuago errepikatu behar diren aro gaixtoer buru egiteko... Horrek guziak gure herria erakargarria, irekia, bizia eta Nafarroako mendietan ongi plantatua izatea ekarri behar du, Baztango eta Erroko bidegurutzean, Tafallako hiri birazkatuarekin solidarioa ere izanez.



ACTUALITÉS **BERRIAK**

Un poste important : l'entretien de la voirie

Baigorri est la 4^{ème} commune la plus vaste du Pays basque Nord, derrière Larrau, Hasparren et Sainte-Engrâce. Le dernier comptage validé par les services de l'État, fait état d'un réseau de 102 kilomètres de voirie communale à charge de la seule municipalité. Refaire les enrobés tous les 20 ans revient à dépenser plus de 130 000 euros par an, sans compter les réparations de dégâts d'intempéries imprévisibles et l'entretien courant.

Afin d'anticiper les travaux à réaliser, la commune a mis en place un suivi exhaustif des voiries qui permettra de gérer leur usure, différente selon la circulation ou la pente par exemple.

En 2024, les voies suivantes ont été refaites tout ou partie :



En plus du curage des fossés, nous consacrons également un budget à de l'élagage. Un programme de 20 000€ a été engagé pour les mois de janvier et février, qui concerne différents quartiers.

Pour 2025, le programme voirie pèsera plus lourd encore dans les finances de la commune puisqu'il ne faudra quasiment plus compter sur l'aide du Conseil départemental des Pyrénées Atlantiques. Si ce dernier a pu financer les communes jusqu'à 40% de leurs travaux de voirie, il a récemment annoncé que ces aides allaient probablement disparaître, dans leur quasi-totalité. L'effort de la commune en termes d'investissement voirie sera donc conséquent et nécessitera une priorisation des travaux et des arbitrages en cours d'année, au gré du montant des travaux effectués.

Avis aux propriétaires riverains de la Nive

L'Association des Propriétaires Riverains de la Nive (APRN) réalise un recensement des propriétaires sur le bassin de la Nive et vous invite à mettre à jour vos coordonnées.

Contact : permanence les lundis et mercredis matins au siège, 13 route de Bayonne 64220 Uhart-Cize.
Tel. : 05.59.49.14.48 / 06.08.24.45.21
Mail : info@aprн.fr

Baux de pêche

Si vous cédez vos baux de pêche à l'APRN, avec l'AAPPMA (Pêche et Protection des Milieux Aquatiques), l'APRN défend vos droits en limitant et contrôlant les pêcheurs, surveille contre le braconnage et les pollutions, réalise des pêches électriques de sauvegarde ou d'inventaire (à coût réduit de 40%) et de l'alevinage des ruisseaux déficitaires.



Postu garrantzitsu bat: bideen artatzea

Baigorri Ipar Euskal Herriko laugarren herri zabalena da, Larraine, Hazparne eta Santa Graziren ondotik. Estatuko zerbitzuek kontzateman azken kontaketaren arabera, herriko bide-sarea 102 kilometrokoa da, osoki herriaren kargu. 20 urteetarik behin mundrun estalia berritzeak urtean 130 000 euro baino gehiagoko gastua ekartzen du, aitzinetik ikus ezin daitezkeen aro gaixtoen kalteen arranjatzea eta usaiako mantenua kontatu gabe.

Egin behar diren obren aitzinetik ikusteko, herriak errebideen segimendu sakona plantan ezarri du, haien higaduraren kudeatzeko, zirkulazioaren edo maldaren arabera, adibidez, ez baitira denetan berdin higatzen. 2024an, bide hauet berreginak izan dira, osoki edo parte batean:



- **Bordaldeko bidea** (2^{ème} partie)
- **Pokoeneko bidea**
- **Belexiko bidea**
(secteur Tihista et Joaneshandi)
- **Etxarteko bidea**
- **Larlako bidea** (Larrebuztan)
- **Bastidako bidea**
- **Erdiko bordako bidea**
- **Salaberriko bidea**
- **Saliesenbordako bidea**
- **Herauneko bidea**
- **Oilarandoiko bidea**
- **Chemin rural Okostei**
- **Pont Hargaitz**

Arroilen garbitzeaz gain, aitzinkontu bat baliatzen dugu xedarratzeko ere. Urtarril eta otsaileko, 20 000 €-ko programa abiatua da. Hainbat auzo hunkitzen ditu.

2025ean, bideen programak pisu handiagoa ukaren du herriko finantzeta, kasik ez baita Pirinio Atlantikoetako Departamendu kontseiluaren laguntzarik izanen. Azken horrek Herriko Etxeen bideetako obrak % 40raino finantzatu izan baditu ere, berriki abisatu du lagunza horiek kasik osoki desagertuko direla, segur aski. Beraz, herriak dirutza aski haundia inbestitu beharko du bideetan, eta urteko obren artean lehentasunak ezarri eta hautuak egin beharko dira, obren kostuaren arabera.

Abisua Ur Haundiko (Errobi) bazterreko jabeer

Errobi Bazterreko Jabeen Elkartea (frantsesez: APRN) jabeen kontaketa egiten ari da Errobiren arroan, eta gomitatzan zaituzte zuen datuak eguneratzerat.

Kontaktua: permanentziak badira astelehen eta asteazken goizetan, elkartea egoitzan, Baionako errepideko 13an, 64220 Uhart-Garazin.
Tel.: 05.59.49.14.48 / 06.08.24.45.21

Helbide elektronikoa: info@aprн.fr

Arraintzarako alokatze-kontratuak

Zure arraintzarako alokatze-kontratuak APRNri uzten badazkozu, AAPPMArekin (Arrantza eta Ureko Ingurumenen Babesa), APRNk zure eskubideak defendatzen ditu, arrantzaleak mugatuz eta kontrolatuz, baimen gabeko arraintzaren eta kutsatzeen kontra zainduz, babesteko edo inventarioa egiteko arraintza elektrikoak egiten ditu (% 40ko kostu muritzuarekin) eta arrain-kumeak ezartzen ditu eskasian diren erreketan.

ACTUALITÉS BERRIAK



Téléchargez gratuitement l'application PanneauPocket

Pour vous informer et vous alerter, votre collectivité s'équipe de PanneauPocket.

Toute l'actualité de votre collectivité, les événements, les informations de coupures réseaux, travaux sur la voirie, alertes météo et bien plus encore... seront toujours dans votre poche, où que vous soyez, quand vous le souhaitez.

Disponible sur Play Store, App Store ou AppGallery

Retrouvez également toutes les infos et alertes des communes depuis un ordinateur sur app.panneau-pocket.com

QR code

Smartphone displaying the PanneauPocket app interface.

Suivez l'actualité de la Commune sur l'application Panneau Pocket

Pour être informé en temps réel des événements associatifs, culturels, des travaux ou des infos de la Mairie. C'est simple, gratuit, anonyme et sans publicité. Aujourd'hui, 288 citoyens sont déjà abonnés aux notifications de Baigorry. Les associations sont invités à transmettre leurs informations qu'ils souhaitent diffuser à l'adresse contact@baigorry.fr.

Réorganisation des services administratifs de la Mairie

Après 40 années de services rendus à la commune, en tant qu'employé administratif, notamment sur les sujets de comptabilité et d'urbanisme, Peio Olçomendy a pris sa retraite le 1er septembre dernier. Un pot de départ a été organisé par la commune pour le remercier et lui souhaiter une bonne retraite et de bons voyages !

Suite à ce départ, les services administratifs de la Mairie ont été réorganisés en interne, sans nouveau recrutement, en développant la polyvalence des agents. Avec une nouvelle répartition des tâches revues avec le Centre de Gestion 64, nous avons pu économiser un demi-poste sur la masse salariale :

- **Cécile Larue**, secrétaire générale de la Mairie suit principalement le Budget et les dossiers de subventions.
- **Josiane Astabie** est en charge de l'urbanisme, des achats et des marchés publics.
- **Annie Hiriart** quitte l'école publique pour se trouver essentiellement en charge de l'accueil en mairie et de l'état-civil.
- **Marie-Claude Izoco** conserve sa fonction d'ATSEM à l'école publique.
- **Carmen Bascans** s'occupe principalement de la gestion du camping entre mai et novembre et complète le poste d'ATSEM à l'école.
- **Élodie Meullenet** assure la cantine, la garderie de l'école publique Jean Pujo et épaulé Carmen au Camping en été.
- **Joritz Larrazak** remplace Bixente Hirigaray pour 1 an dans l'animation territoriale et les projets transfrontaliers comme le POCTEFA « Kintondare » (cf bulletin précédent).

Du côté des services techniques, Christophe Polidori est le responsable d'une équipe de sept agents en charge de l'entretien des bâtiments et des équipements, de l'appui logistique aux différentes manifestations et des plus de 100 km de voirie et chemins ruraux.

Herriaren aktualitatea segi ezazie Panneau Pocket aplikazioari esker

Elkarteen, kulturaren, obren, edo Herriko Etxearen informazioen berri denbora errealean ukaiteko. Errexa, kitorik, anonimoa eta publizitaterik gabea da. Gaurko egunean, jadanik, 288 herritar harpidetuak dira Baigorriko abisuen ukaiteko. Elkarreak gomittatuak dira zabaldu nahi dituzten informazioak ondoko helbiderat helarazterat: contact@baigorry.fr.

Herriko Etxeko zerbitzu administratiboen berrantolatzea

40 urtez herriaren alde lanean aritu ondotik, administrazioko langile gisa, bereziki kontabilitate eta hirigintza gaietan, Peio Olçomendy erretreta hartz zuen, joan den buruilarren leian. Herriko Etxeak trago bat antolatu zuen haren eskertzeko, bai eta erretreta goxoaren eta bidaia ederren desiratzeko!

Joate horren ondotik, Herriko Etxeko zerbitzu administratiboak berriz antolatuak izan dira, barnetik, bertze langilerik hartz gabe, langileen gaitasun-aniztasuna garatuz. Centre de Gestion 64 zentroarekin zereginak berrikusi eta bertze manera batez banatu eta, postu erdiko ekonomia egin ahal izan dugu lansarien masan :

- **Cécile Laruek**, Herriko idazkari nagusiak, buxetaren eta dirulaguntza dosierren segimendua egiten du nagusiki.
- **Josiane Astabie** hirigintzaz, erosketez eta merkatu publikoez arduratzan da.
- **Annie Hiriartek** eskola publikoa utzi du, bereziki Herriko Etxeko harreraz eta egoera zibilaz arduratzeko.
- **Marie-Claude Izocok** bere ATSEM kargua atxiki du eskola publikoan.
- **Carmen Bascans**, maiatza eta azaroa artean, batez ere kanpinaren kudeaketaz arduratuko da eta ATSEMEN postua osatzen du eskolan.
- **Élodie Meullenet**-ek kantina eta Jean Pujo eskola publikoko haurtzaindegia segurtatzen ditu, eta Carmen lagunten du, udan, kanpinean.
- **Joritz Larrazak** Bixente Hirigarayen lekua hartz du, urte baterako, lurraldeko animazioan eta mugaz gaindiko projektuetan, hala nola «Kintondare» POCTEFA (ikus aitzineko kazeta).

Zerbitzu teknikoen aldetik, Christophe Polidori zazpi langilez osatu taldearen arduraduna da; eraikinen eta ekipamenduen mantentzeaz, gertakarien laguntza logistikoaz eta herriko bideez eta laborantxarako bideez okupatzen da (100 km baino gehiago).

Rénovation de l'EHPAD Larrazkena

C'était l'un des gros chantiers annoncés en début d'année 2024, au moment des vœux. Au terme de deux ans de travail entre les partenaires principaux que sont la commune de Baigorri, propriétaire des bâtiments et l'association AAPAVA en charge de la gestion de notre EHPAD (Établissement d'Hébergement pour Personnes Âgées Dépendantes), le projet devient réalité, en début d'année 2025. Les travaux, entamés en janvier, devraient être terminés pour le printemps 2026.

Le projet se décompose en deux étapes différentes. Tout d'abord, l'agrandissement de l'EHPAD par la construction de 4 nouvelles chambres au-dessus de la cuisine (pas d'emprise supplémentaire au sol), sans augmentation du nombre de places disponibles. En effet, les chambres doubles ne sont plus utilisées par des couples depuis longtemps, ce qui engendre une sous-occupation des places disponibles. Il s'agira ensuite de rénover les 42 salles de bain de l'établissement.

Le coût total des travaux s'élèvera à : 946 669,14€ HT, soit 1 038 206,66€ TTC. Ce projet, important pour la commune, bénéficie d'un soutien de la part de différents partenaires.

- **L'État :** DETR (Dotation d'Équipement des Territoires Ruraux) de 160 000€ (sur le montant HT des travaux).

- **L'Agence Régionale de Santé :** Dans le cadre du « Ségur de l'investissement », subvention sur des fonds européens de 176 929€ (sur le montant TTC des travaux).

- **Le Conseil Départemental des Pyrénées Atlantiques :** subvention de 188 842€ (sur le montant TTC des travaux).

- **La Communauté d'Agglomération Pays Basque :** Fonds de concours de 75 648,34€ (sur le montant HT des travaux).

Les différentes aides permettent un subventionnement qui viendra couvrir plus de 50% du montant des travaux, ce qui est plutôt exceptionnel, étant donné les difficultés financières auxquelles les collectivités doivent faire face depuis plusieurs années. À ceci s'ajoute enfin un prêt de 150 000€ sur 10 ans de la part de la MSA, au taux très favorable de 2%. Le reste est pris en charge par la commune, par le biais notamment d'un prêt bancaire.



Larrazkena zahar etxearen berritzea

Larrazkena zahar etxearen berritzea 2024ko urte hastapeneko agianzen karietarat aripatu obra handietako bat zen. Baigorriko herriak (eraikinen jabeak) eta gure EHPADaren kudeaketaz arduratzen den AAPAVA elkar-teak eraman bi urteko lanaren ondotik, proiektua gauzatzen ari da 2025ko urte hastapen hantan. Lanak, urtarilean hasiak, 2026ko primaderako bururatuak izanen dira.

Proiektua bi urratsetan egiten ari da. Lehenik, zahar etxearen haunditzea, sukaldareen gainean 4 sala berri eraikiz (lur gehiago erabili gabe), leku erabilgarrien kopurua emendatu gabe. Alabainan, bikoteek aspalditik ez zituzten erabilten sala bikoitzak eta, beraz, leku erabilgarriak ez ziren ahal bezainbat okupatuak. Ondotik, zahar etxeeko 42 bainugelak berritu beharko dira.

Obren kostu osoa 946 669,14€-koa izanen da, zergarik gabe, hots 1 038 206,66€, zergak barne. Herriarendako garrantzitsua den proiektu horrek hainbat partaideen sustengua du.

- **Estatua:** Baserri lurrardeetako ekipamendu dotazioa (DETR) 160 000€ (obren zergarik gabeko kostutik).

- **Eskualdeko Osasun Agentzia:** «Ségur de l'investissement» de-lakoaren barnean, 176 929€-ko dirulagunza, Europako funtsetan harturik (obren zergak barneko kostutik).

- **Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseilua:** 188 842€-ko dirulagunza (obren zergak barneko kostutik).

- **Euskal Hirigune Elkargoa:** 75 648,34€-ko lagunza funtsa (obren zergarik gabeko kostutik).

Lagunza horiek obren kostuaren % 50 baino gehiago estaliko duen dirulagunza bat emaiten dute, eta hori aski usaiaz kanpokoa da, elkargoek azken urteetan jasan behar izan dituzten zaitasun ekonomikoak ikusirik. Horri gehitu behar zako, azkenik, 150 000€-ko mailegua, 10 urtekoa, MSAri harturik, % 2ko tasa biziki onean. Gainerakoa herriak hartzen du bere gain, bankuan egin mailegu baten bidez, bereziki.

L'association Trebatu à la recherche de foncier agricole ➤

Trebatu porte depuis 2016 le dispositif «Espace-test agricole» sur le Pays Basque nord. L'objectif est d'accompagner les personnes ayant un projet d'installation agricole de le tester en conditions réelles sur une durée limitée, dans un cadre limitant la prise de risque. Depuis octobre 2022, Trebatu accompagne Marie Loisel en test d'activité, sur la ferme « Zirriten borda » d'Irouléguy. Elle a constitué un cheptel de chèvres des Pyrénées avec transformation de produits laitiers (fromage frais, yaourts) et commercialisation en vente directe. Le bilan des deux premières années de test est positif mais elle devra quitter cette ferme provisoirement. Trebatu appuie ainsi sa recherche d'exploitation pour poursuivre son activité sur un autre lieu. Intéressé(e), prenez contact.

Trebatu - 06 49 43 49 42 / trebatu@outlook.com



TREBATU

Trebatu elkartea laborantxako lurren bila

2016az geroztik, Trebatuk «laborantzako entsegu eremua» dispositiboa eramaite du Ipar Euskal Herrian. Helburua da laborantxan plantatzeko proiektua duten pertsonak laguntea, egiazko baldintzetan proba dezaten, epe mugatuan, arriskua mugatzen duen manera batez. 2022ko urriaz geroz, Trebatuk Marie Loisel laguntzen du aktibitate-proban, Irulegiko «Zirriten borda» etxaldean. Pirinioetako ahuntz azienda bat muntatzen du; esnekiak transformatzentzu (gasna fresko, jogurtak) eta zuzeneko salmentan merkatatzzen. Probaren lehen bi urteetako bilana baikorra da, bainan behin-behineko etxalde hori utzi beharko du. Trebatuk etxalde bat xerkatzen lagunten du, bere aktibitatea bertze leku batean segi dezan. Interesatua baldin bazira, harremanetan jar zite: Trebatu - 06 49 43 49 42 / trebatu@outlook.com

TRANSITION ÉCOLOGIQUE TRANTSIZIO EKOLOGIKOA

Dix nouveaux logements dans le Centre bourg

La maison Cuburu-Zaldagarria va être reconstruite

La maison appelée « Cuburu » (Zaldarriaga, dans les documents anciens) localisée à Behereko Karrika est propriété de la commune par décision définitive du tribunal judiciaire de Pau du 5 août 2024. Le projet est porté par le maître d'œuvre Habitat Sud Atlantique (HSA), office public de l'Habitat du Pays Basque. Le bâtiment étant en trop mauvais état, il sera détruit et reconstruit dans les proportions de façade semblables à l'original (le linteau sera conservé). L'idée d'y installer un commerce en rez-de-chaussée a été abandonnée, l'espace étant trop réduit. Finalement, quatre logements T2 à loyers conventionnés vont être créés dans Zaldarriaga-Cuburu.

La maison Ernautenea va être rénovée

L'Office 64 de l'Habitat a acquis « l'ancienne gendarmerie », face au Monument aux Morts pour la réhabiliter complètement. Cinq logements seront rénovés et un sixième créé, tous proposés avec des loyers conventionnés plafonnés.

Ces deux chantiers doivent commencer cette année et devraient durer environ 15 mois.



Maison Cuburu-Zaldarriaga

Vous rénovez ou adaptez votre logement ?

Venez vous renseigner sur la rénovation et l'adaptation de votre logement à la Maison de l'Habitat et de l'Energie Pays Basque à St Palais - 1 Elizako karrika du mardi au vendredi. Une permanence est également ouverte tous les 2èmes mercredis du mois de 9h à 12h à la Maison des Services de St Jean Pied de Port - 1 rue des bergers.

Par téléphone au 05 59 44 77 80 ou par mail à maison.habitat@communaute-paysbasque.fr



Maison Ernautenea

Hamar etxebizitza berri herri zentroan

Zuburu-Zaldarriaga etxearen berritza

« Zuburu » izeneko etxea (Zaldarriaga, dokumentu zaharretan), Behereko Karrikan kokatua, herriarena da, Paueko auzitegi judizialaren 2024ko agorrilaren 5eko behin betiko erabakiz. Proietua Habitat Sud Atlantique (HSA) obralariak eramaite du, hori baita Euskal Herriko Etxebizitzen bulego publikoa. Eraikina oso egoera txarrean dagoenez, botaia izanen da eta berriz eraikia, jatorrizkoaren fatxaden bezalako proportzioan (atalburua atxikiko da). Etxe beherean saltegi bat ezartzeko ideia baztertua izan da, espazioa ttipiegia baita. Azkenik, lau T2 etxebizitza sortuko dira Zaldarriaga-Zuburun.

Ernautenea berritua izanen da

Office 64 de l'Habitat erakundeak Gerlako hilen oroitariaren pareko « jendarmeria zaharra » eroski du, osoki berritzeko. Bost etxebizitza berrituak izanen dira eta seigarren bat sortua. Denek alokairu hitzartuak izanen dituzte.

Bi obra horiek aurten hasiko dira eta 15 hilabete inguru iraunen dute.

Zure etxebizitza berritzen edo egokitzen duzu?

Zato zure bizitegiaren berritzeari eta egokitzeari buruz galdetzerat, asteartetik ortziralerat, Donapaleuko Euskal Herriko Etxebizitza eta Energiaren Etxean - Elizako karrika, 1. Permanentzia bat bada hilabete guziz, bigarren asteazkenetan, 9:00etatik 12:00etarat, Donibane Garaziko Zerbitzu Etxean - Artzainen karrika, 1.

Telefono hundaratz deitzen ahal duzu: 05 59 44 77 80, edo maison.habitat@communaute-paysbasque.fr helbiderat idatzi.



BIZILEKUAREN ETA ENERGIAREN ETXEA
MAISON DE L'ABITAT E DE L'ENERGIA



TRANSITION ÉCOLOGIQUE TRANTSIZIO EKOLOGIKOA

Aide à l'achat d'un récupérateur d'eau de pluie

L'aide est accordée à tout titulaire d'un contrat avec le service de l'eau du Pays Basque, particulier, entreprise ou association, sans condition de ressources. L'aide s'applique à tout type d'équipement (matériel hors-sol, matériel enterré), quelle que soit sa contenance, ainsi qu'à ses frais éventuels d'installation. Pour une contenance inférieure ou égale à 1 000 L, l'aide est de 50€. Au-delà de 1 000 litres, l'aide est de 50 % du reste à charge, après déduction des autres aides publiques.

Dossier à compléter sur <https://www.communaute-paysbasque.fr/aide-a-lachat-de-recuperateurs-deau-de-pluie>



Projet du Lac de Bortzirieta

Le CPIE de Baigorri a été retenu dans l'appel à projets de la CAPB Montagne Basque «Gure Ondare naturala» afin de valoriser la richesse écologique du lieu. Cette année, le CPIE organisera des ateliers de travail avec les habitants pour préparer le futur du Lac : visite de terrain, suivi scientifique Grand public, chantiers Grand Public et avec les lycées agricoles, projet avec les 3 écoles et les 2 collèges du village.

En novembre, un premier chantier avec le lycée Armand David d'Armand David a permis de supprimer des espèces exotiques envahissantes et des échappées de jardin sur le plateau et le sentier qui remonte vers Oronozia.

PAPI de la Nive

Programme d'Actions de Prévention des Inondations

La CAPB a engagé une étude hydraulique globale de la Nive dans le cadre d'un Plan de Prévention des Inondations. En plus d'un relevé numérique, ils étudient les événements en termes d'intensité, fréquence, durée....

En concertation avec les acteurs du Territoire et les communes d'Urepele, Aldude, Banka, Arrosa et Baigorri, une présentation publique a été faite le 3 septembre dernier, regroupant 40 personnes à Baigorri. Les animateurs ont réalisé un sondage dans la salle pour établir plusieurs scénarios d'aménagements concrets (barrages, digues, curages, prévisions des crues, radars). Chaque mesure sera étudiée par les techniciens et une prochaine réunion de restitution permettra de prioriser les actions retenues.

Pour intégrer le dispositif, les propriétaires non présents aux réunions publiques sont invités à se faire connaître à la Mairie.

Euri-ura errekuperatzeko ontziaren erosteko laguntza

Laguntza Euskal Herriko ur-zerbitzuarekin kontratu baten jabe den orori emaiten zako, izan partikular, empresa edo elkartea, baliabide baldintzarik gabe.

Laguntza edozein motatako ekipamenduei aplikatzen zaie (bai lurrez kanpokoari, bai lurperatuari), edozein direla ere haren edukiera eta balizko instalazio-gastuak.

1 000 litroko edo guttiagoko edukiera baldin badu, laguntza 50€-koa da. 1 000 litrotik goiti, laguntza % 50ekoa da, bertze laguntza publikoak kendu eta pagatzeko gelditzen denetik.

Dos Sierra ondoko helbidean osatu behar da: <https://www.communaute-paysbasque.fr/aide-a-lachat-de-recuperateurs-deau-de-pluie>



Bortzirietako lakuaren proiektaua

Baigorri dagoen Euskal Herriko Ingurumenaren aldeko Ekimen Zentro Iraunkorra atxikia izan da Euskal Elkargoaren «Gure Ondare naturala» proiektu deialdian, lekuko aberastasun ekologikoa balioesteko. Aurten, Euskal Herriko Ingurumenaren aldeko Ekimen Zentro Iraunkorrik laneko bilkurak antolatuko ditu, geroko lakuaren proiektaua bizilagunekin prestatzeko: tokiarren bisita, publiko zabalariz zuzendu segimendu zientifikoa, publiko zabalaren eta laborantxa lizeoen parte harrazteko obrak, herriko 3 escolekin eta 2 kolegioekin muntatu proiektaua.

Azaroan, Hazparneko Armand David lizeoarekin egin lehen obra bat esker, espezie exotiko inbaditzaileak eta lorategi batzuetatik jin espezieak kendu ziren ordokitik eta Oronozia aldera doan bidexkatik.

Errobiko uholdeen prebentzio-ekintzen programa

Euskal Elkargoak Errobiren azterketa hidrauliko orokor bat abiatu du Uholdeen Prebentzio Plan baten barne. Zenbakizko erregistro batez gain, gertakariak aztertzen dituzte intentsitatearen, maiztasunaren, iraupenaren eta beste alde batzuetatik.

Lurraldoko eragileekin eta Urepeleko, Aldudeko, Bankako, Arrosako eta Baigorriko herriekin bat eginez, aurkezpen publiko bat egin zen, joan den buruilarren 3an, Baigorri: 40 pertsona bildu ziren. Animatzaileek galdeketa bat egin zuten gelan, antolamendu konkretu batzuen egitea deliberatzeko (nazak, dikeak, arroilen garbitzea, uholdeen aitzin ikustea, radarrak). Teknikariek neurri bakotxa aztertuko dute, eta hurrengo bilkura batean lehentasunezkoak hautatuko dira atxikiak izanen diren ekintzen artean.

Dispositiboa integratzeko, bilkura publikoetan ez ziren jabeak Herriko Etxean aipatzerat gomitatuak dira.

ACTUALITÉS BERRIAK

Création d'un label basque « Euskal Trail estazioak / Stations Trails du Pays basque »

Baigorri s'unit avec la commune d'Uhart-Arakil (Navarre), et les Agences de Tourisme en charge des territoires du Goierri (Ordizia, Zegama....), Tolosa (Gipuzkoa), pour créer un label station de trails transfrontaliers.

Le projet souhaite atteindre les objectifs suivants :

- Fédérer et promouvoir les quatre stations de trail, avec une charte signalétique commune
- Attirer les traileurs des montagnes proches en générant notamment la mobilité d'une station à une autre,
- Développer l'interconnaissance et l'échange entre les deux versants des Pyrénées, avec une large place donnée à l'euskara, langue commune
- Diffuser une pratique du trail et de la randonnée respectueuse de l'environnement et de l'espace montagnard.

L'Eurorégion Nouvelle-Aquitaine Euskadi Navarre et la Communauté d'Agglomération Pays basque ont donné un avis favorable pour participer au financement. L'inauguration de la nouvelle station de trail et de la marque « Euskal Trail Estazioak » aura lieu courant 2026.

« Muga gainetik »

C'est en 2021 que fut officialisé la relance du jumelage entre Baigorri et Tafalla, initié par Jean Hartischelhar en 1979. Dans la continuité des animations organisées par les deux communes, un week end culturel a eu lieu les 1^{er} et 2 novembre 2024 à BAIGORRI. Au programme : présentation du film « Bizkarsoro » à Urdoze suivi du concert « Huntaz eta hartaz » de Ruper Ordorika et Joseba Sarrionandia, marché des producteurs navarrais, concerts de Xutik et « Odolkiak ordainetan ». Aussi, afin de tisser des liens, d'échanger, de développer des actions communes entre Baigorri et Tafalla, et de poursuivre la coopération ; l'association « Muga gainetik » composée de représentants baigorriens des différents secteurs d'activités sportifs, culturels, économiques, social... verra prochainement le jour.



Antton Curutcharry, maire de Baigorri, recevant l'ouvrage « Imago Vasconiae » des mains des Xabier Alcuaz, maire de Tafalla.

Antton Curutcharry Baigorriko auzapeza «Imago Vasconiae» obra errezibitzen ari Xabier Alcuaz Tafallako auzapezaren eskutik



Les 4 partenaires de Baigorri, Uhart-Arakil, Goierri et Tolosa réunis dans les locaux de l'Eurorégion le 15 octobre 2024

Baigorriren 4 partaideak (Uhart-Arakil, Goierri eta Tolosa) Euroeskualdearen egoitzan bildurik, 2024ko urriaren 15ean

«Euskal Trail estazioak/ Station Trails du Pays Basque» labelaren sortzea

Baigorri elkartu da Uharte-Arakilgo (Nafarroa) herriarekin eta Goierri (Ordizia, Zegama...) eta Tolosaz (Gipuzkoa) arduratzaren diren Turismo Agentziekin, mugaz gaindiko trail estazio label baten sortzeko.

Proiektuak helburu hauek bete nahi ditu:

- Lau trail estazioen federatzea eta sustatzea, seinaletika komun bat ere plantan emanet.
- Hurbileko mendietako trailerrak erakartzea, bereziki estazio batetik bertzerat joateko usaia sortuz.
- Pirinioetako bi isurialdeen arteko ezagutzaren eta trukaketaren garatzea, gure hizkuntza komuna den euskarari leku zabala emanet.
- Ingurumena eta mendigunea errespetatzen dituzten trail- eta ibilaldi-praktikak zabaltzea.

Akitania Berria-Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak eta Euskal Hirigune Elkargoak finantzaketaen parte hartzearen aldeko iritzia eman dute. Trail estazio berriaren eta «Euskal Trail Estazioak» markaren estreinaldia 2026an iraganen da.

“Muga gainetik”

2021ean ofizial egin zen Baigorriren eta Tafallaren arteko senidetzearen berpiztea, Jean Hartischelharrek 1979an abiatu ondotik. Bi herriek antolatu animaziora segida emanez, 2024ko azaroaren 1 eta 2an kultur-asteburu bat egin zen BAIGORRIN. Programan: «Bizkarsoro» filmaren aurkezpena Urdozen, eta ondotik Ruper Ordorikaren eta Joseba Sarrionandiaaren «Huntaz eta hartaz» kontzertua, Nafarroako ekoizleen azoka, «Xutik» eta «Odolkiak ordainetan» taldeen kontzertuak.

Beraz, loturen josteko, trukatzeko, Baigorriren eta Tafallaren arteko ekintza bateratuen garatzeko, eta lankidetzaren segitzeko, laster, «Muga Gainetik» elkarrea sortu da, Baigorriko kirol, kultura, ekonomia, gizarte alorretako ordezkariek osaturik.

ACTUALITÉS BERRIAK

Nouveautés Txik Txak 2025

Notre commune est desservie du lundi au vendredi par **deux lignes de bus** :

> **La ligne 64** relie Saint-Jean-Pied-de-Port à Urepel.

> **La ligne 62** relie Saint-Martin-d'Arrossa à Urepel. (même billet pour bus + train)

Elle bénéficie également du nouveau service de Transport à la Demande (TAD) et de tous ses avantages :

- **Sur mesure** : TXIK TXAK vient vous chercher à l'adresse de votre choix et vous emmène vers une sélection de points de dépôse (Intermarché, Maison de santé, Place).

- **+ de liberté** : Réservez jusqu'à 1 heure avant votre départ.

- **Accessibilité pour tous** : Tous les véhicules sont accessibles aux personnes à mobilité réduite

- **Horaires du service** : Du lundi au samedi de 7h30 à 19h.

Tarifs : Le Transport à la Demande est accessible au même tarif que le bus et il est inclus dans les abonnements.



Txik Txaken 2025eko berrikuntzak

Bi autobus linea pasatzen dira gure herritik, astelehenetik ostiralerat:

> **64. lineak** Donibane Garazi eta Urepele lotzen ditu.

> **62. lineak** Arrosa eta Urepele lotzen ditu (txartel bera da autobusaren eta trenaren hartzeko)

Eskariaren araberako garraio zerbitzu berria eta haren abantaila guziak ere baliatzen ditu:

Izarian: TXIK TXAK hautatu duzun helbiderat jiten da eta hainbat geltokitarat eramaiteen zaitu (Intermarché, Osagarri Etxea, Plaza).

- **Askatasun gehiago**: erreserba ezazu abiato aitzinoko oren bat arte.

- **Denek hartzen ahal dute**: ibilgailu guziak egokitua dira mugikortasun urriko pertsonendako.


- **Zerbitzuaren ordutegia**: astelehenetik ebiakoitzera 7:30etik 19:00etaratz.

Prezioak: eskariaren araberako garraioa autobusaren tarifa berekoa da eta abonamenduetan sartzen da.

Le carnet / Egoera zibila 2024

Naissances / Sortzeak

BENTATA Joaquim
BEDU CHARON Oihan
BERGOUIGNAN SAINTE-MARIE Mara
CABILLON Ethan
CASENAVE Xalbat
D'AMICO Ezio
KURUTCHARRY Luma
LEKUMBERRY STASI Mao
MERZISEN BERNATETS Laina
OLÇOMENDY CHERBERO Kamila
ROZADOS Mikela
SALETTIS VILARELLE Oihan




Mariages / Ezkontzak

DOLOSOR Julen & LURO Maïder
ANXOLABEHÈRE David & ARRIBADA Séverine
DUZAN Marc & HOUYVET Séverine
ECHECOLANEÀ Xabi & BIDEAGAIN Camille
MACHET Antoine & SOUFFLET Anne-Laure
BOQUET Sébastien & RODRIGUES Cynthia

Décès / Heriotzak

AHUNCAIN Etienne Martine veuve MENDIBOURÉ Bernard
ARREGUY André Jean François
BIDEGORRY Dominique
CORDOIN Marcel André
COSCARART Jean Raymond
DOYLE Stephen Michael
DURRITÇAGUE Louis
ELIZONDO Eulalia veuve de Jean OLIVIERI
ERRECART Jean Michel
FALXA Joséphine veuve de Pierre HARISTOY
GAMIETA Marie-Léonie veuve de ASCARAIN Jean
GARNIER Jean-Claude Paul
GASTAGNAGA Laurent
İNÇAURGARAT Véronique veuve de MIURA Juan Tomas
INPUTCHA Alexandre
IRIBARREN Irène veuve de MIRAL Pierre
LAFEUILLE Guy Raymond Louis
LAMARQUE Michel
LANDABOUROU Jeanne veuve PALUAT Denis
LARDAPIDE Pierre Martin
LASSÉOUGUE Jacqueline Andrée
LAXAGUE Jeanne veuve de ARAMBEL Laurent
LE DREFF Geneviève Madeleine Marguerite, Françoise
MACHICOTE Frédéric
MARTINEZ Jean
MENDIBIL Victor
OSPITAL Jean-Baptiste
PALOMES Christian André
TIPY Jeanne veuve BARNETCHE



J'ai une question Monsieur le Maire

Si vous souhaitez interroger M. le Maire ou simplement faire part de vos remarques, déposez ou adressez un courrier à M. le Maire : Mairie - 64430 Saint-Étienne-de-Baïgorry ou adressez un mail à : contact@baigorry.fr

Galdera bat badut, jaun auzapeza

Zerbait galduetu nahi badakozu jaun auzapezari edo, bertzerik gabe, zure oharren berri eman, gutun bat utz edo igor ezazu helbide huntarat: Jaun Auzapeza - Herriko Etxea 64430 Baigorry, edo mezu elektroniko bat helbide huntarat: contact@baigorry.fr